

EUSKARA BATZORDEAK 2009ko AZAROAREN 5ean IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Idoia Fernández Antia and. (Euskara Zinegotzia)
Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)
Pernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
Laura Etxabe and. (Seber Altube ikastola)
Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)
Anabel Gerrikagoitia and. (Mertzedede ikastetxea)
Izaskun Gonzalez and. (Hitza egunkaria)
Rosa Okariz and.

Idazkaria:

Bittor Zarrabeitia jna (Hizk. Norm. Tek. I)

Bertaratu ezin daitezkeela esan dutenak:

Ezker abertzalea
LAB sindikatua

Hasiera ordua: 19:00

Amaiera ordua: 21:00

1).- Aurreko bilerako akta (2009ko apirilaren 22koa)

Aurreko bilerako aktari buruzko oharrik ez da egin eta aho batez onartu da.

2).- Euskara ikasteko diru laguntzen araudia.

Euskara Zinegotziak azaldu duenez, Euskara Batzordean landutako araudi berria udal Idazkariari pasatu zitzaion, lege aldetik beharrezko egokipenak egitearren, eta Tokiko Gobernu Batzarrak onartu egin du oraintsu; beraz, indarrean dago.

3).- Kontseilua eta bere dinamikak. Jarraipena eta inplikazioa.

Euskara Zinegotziak azalpenak eman ditu Kontseiluarekin berarekin eta Ziuertagiriaren elkartearekin sinatutako hitzarmenez.

Jarraian, Euskara dinamizatzailerak hitzarmen horiek aitzakia burutu edo burutzekoak diren kanpainei buruzko informazio eskaini du:

- Aseguru etheen kanpaina: helburuak argitu ditu. Norbanakoak Euskal Herri mailan 600 bat izan ei dira, oso kopuru baxua; bigarren mailako helburua, aseguru-etxeetako buruekin batzarrak egitea, oraintxe ari dira gauzatzen eta eurek uste baino harrera hobearekin.

Udalerri mailan aseguru-etxeekin batzar pare bat egin dira eta protokolo antzeko bat adostu da; kanpaina burutu den arren, urtean zehar eskaera-orriak mantendu egingo dira eta jarraipena egingo zaie aseguru-etxeei, aholkularitza eskainiz.

- Nominak euskaraz kanpaina: kontseilukoak zuzendaritzaren aginduari zain daude. Guk, bitartean, herri mailan aurreikusita geneukan eta aurrera jotzea erabaki dugu; Kontseiluarekin bat egitea gerta daiteke edo gurea aurreratzea.

Aholkularitza enprekin batzarra egingo da azaroaren 10ean, euren inplikazioa lantzeko eta, bide batez, “Apellidua abizendu” kanpaina ere eurekin zuzenean garatzeko.

Euskara Zinegotziak dio nomen kanpainak beste eragin bat ere badaukala, enpresek nominak aholkularitzen bidez egiten dituztelako eta horrek zerikusi zuzen-zuzena duelako Bai Euskarari Ziuertagiria lortzearekin. Nomina euskaraz izan ala ez, ziuertagiria “abian” mailakoa edo “zerbitzu osoa” mailakoa izan daiteke.

- Bai Euskarari ziuertagiria: Euskara dinamizatzailerak dioenez, elkarte, enpresa eta merkataritza arloak behin landuz gero, beste

mota bateko erakundeetan ari gara eragiten (ikastetxeak, profesionalak,...).

Azaroan ziuertagiriaren sustapena egingo da eta abenduaren 20an burutuko da banaketarako ekitaldia.

4.- Euskara arloko webgunea.

Euskara Zinegotziak gogoratu egin du iaz Euskara Batzordean ontzat eman zela aurrera jotzea proiektu horrekin, udalak bere web orria bertan behera duelako euskara arlorako webgune berezia eratzea, alegia. Dioenez, egitasmoak hiru fase izango ditu, hiru urterako lana, eta urte bukaerarako eduki nahi da sarean webgunearen oinarria.

Batzordeko idazkariak aipatu du Iametzta enpresari egin zaiola adjudikazioa lehenengo faserako eta bihar, azaroak 6, batzarra izango dela gauzak zehazten joateko.

Euskara Zinegotziak dio webgunearen deitura pentsatu egin beharko dela eta horri buruzko hausnarketa egin dute batzordekideek, kontuan harturik deiturarekin lotuta daudela bariabile teknikoak eta aurkitzaileen funtzionamendua. Hiru kontzeptu batu beharko lirakeela argi geratu da: “euskara”, “gernika” eta “lumok”. Jarraian, webgunearen egitura nagusia azaldu du puntuz puntu.

Agendaren txokoa azaltzerakoan, jaso diren eskaeren arabera planteamendua ondo aztertu beharko dela aipatu da: udalerrri mailakoa edo eskualdekoa egin, jendaurreko ekintzak edo ekintza mota guztiak jaso,... agenda honetan, euskaraz egiten den, eskualdeko saio orok izango duela toki erabakitzen da.

5.- Proiektu berriak.

Euskara Zinegotziak hurrengo egitasmoen berri eman du:

- “Euskal Herriko ahotsak” proiektua: Euskal Herriko mailan ekiten dion Badihardugu Elkartearekin proposamena jaso ondoren, eurekin hitzarmena sinatzea erabaki da, hizkuntza

ondarea zaindu eta berreskuratzeko helburuarekin. Gernikako bizimodua, ohiturak eta hizkuntzaren lekukotasuna eskuratzeko grabaketak egingo dira. Asmoa zen hiru urterako egitea, baina 2010eko diru murrizketak bitarteko, 2009an hasia erabaki da, lau urteko epean diru-zamak banatzeko.

Batzordeko idazkariak argitu du proiektu horrek hizkuntza ondarea aztertzei aukera emango duela, iaz Euskara Batzordean bertoko hizkuntza ondareaz ikertzeko planteamendua gauzatzeko bidea irekiz, eta, gainera, hainbat lan ekarriko dituela atzetik: digitalizazioa, grabaketetan pistak desberdindu eta nahi den audioa aurkitzeko lekukotasunera jotzeko aukera izatea, webgunean entzungai eta kontsultagai jartzea,...

- “Gidabaimena euskaraz” kanpaina: herriko autoeskolekin lanean jarduteko fronte berri bat irekitzeko helburua izan dela azaldu du Euskara Zinegotziak, baina datorren urterako aparkatzea proposatzen da, aurrekontu murrizketa izango delako eta beste lehentasun batzuei aurre egin ahal izateko. Euskara Batzordeak, oraingoz geldi uztea erabaki du.

6.- Zenbait hitzordu.-

- Euskararen Eguna.- Euskara Zinegotziak dioenez, iaz erabaki zen zerbait egitea maila erreibindikatioan eta pentsatu da “Apelliduak abizendu” kanpaina kalera ateratzea, egun horretan kalean mahai bereziak jarrita. Batzordekideek ontzat eman dute.
- Abixadan.- Euskara Zinegotziak jarduera honen inguruko historia apur bat egin du, Urdaitri elkartearekin izan diren gora-beherak barru: lehenengo batean finkaturiko helburuak nahastea (gauza herrikoia planteatu eta laterketa bihurtzea), diru laguntzaren norentzat (odol-emaileei eman nahi zioten iazkoan), gehi Urdaitri aurten antolatu izan duen nazioarteko lasterketaren aurkezleagatik arazoak. Batzordekideek dakiten bezala, gutun bat bideratu zitzaion Kirol Erakundeari eta elkartearen eskuetara iritsi zen, ez zuenean behar; euren atzetik ibili ostean, udaletxean behin agertu zen Urdaitriko ordezkaria eta modu txarrean hanka

egin. Ordezkarri honi buruz dugun azken berria, bere jarduera uzten duela esaten duen gutuna da.

Beraz, pentsatu dugu kirola euskaraz egitea bada helburua, Goizale elkartekoekin berba egin eta ibilaldi neurtu bat antolatzea; bi zirkuito, bata luzea eta, bestea, laburragoa, ABIXADAN deitura mantenduz. Batzordekideek ondo ikusten dute.

Batzordeko idazkariak proposatu du “Abixadan” ekitaldiarekin batera aproposa litzatekeela euskara arloko webgunea kalean pantaila handi batean aurkeztea, jendaurreratzea, eta ibilaldiari irteera emango zaion une berean egitasmo horrek ibiltzeari ekiten diola adierazteko.

7.- Aurrekontuak 2010.-

Euskara Zinegotziak informazioa eskaini du datorren urteko aurrekontuaz; orokorrean %20ko murrizketa egongo da eta euskarazkoari ere neurri berean doakio murrizketa hori.

Hurrengo batzar bat egingo da, monografikoa, aurrekontuari buruz. Ordurako hausnarketa egitearren, aurrekontuaren aurreikuspen bat banatu du eta bertan aintzat hartutako partidak eta markatutako lehentasunak azaldu ditu.

Beste aztergaitik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

EUSKARA ZINEGOTZIA

HIZK. NORMALIZAZIORAKO TEKN. 1

Idoia Fernández Antia

Bittor Zarrabeitia Bengoa

